



<b>abagune</b> aukera	«Ez zuen askorik hitz egin Daverekin Piersekin borrokan aritu zenez gero; ez zen hartarako <b>abagunerik</b> sortu.»	(184)
<b>adeitsu</b> begirunezkoa, atsegina	«Aurpegiera <b>adeitsu</b> , intelektuala zuen, eta, hala, irakaslea edo legelaria izan zitekeen...»	(153)
<b>aintzira</b> laku txikia, urtegia	«Egoitza hartan, <b>aintzira</b> bat zegoen lorategiaren erdian.»	(9)
<b>alderrai</b> noraezean	«...ez bazuen ezer aurkitzen, Gill Petrieren etxea utzi eta gaueko babeslekuen eta <b>alderrai</b> ibiltzearen miseriara bueltatu beharko zuen.»	(137)
<b>anker</b> krudela, zitala	«Batak bestea gure sarkasmorik <b>ankerrenaz</b> txikitzea zen han egin zitekeen gauzarik okerrera.»	(185)
<b>antigoaleko</b> antzinako	«...altzari-berriztatzaile bat eta <b>antigoaleko</b> autoentzako berogailuak egiten zituen gizon bat.»	(152)
<b>arbuiagarri</b> gorrotagarria,	«...ondo zekien oinazeak nola ikaratzten zuen, eta zeinen <b>arbuiagarria</b> zen...»	(202)
<b>arerio</b> etsaia	«Tigre batek bezala eraso zion bere <b>arerioari</b> ; ahal izan balu, han bertan hilko zukeen.»	(114)
<b>arrakala</b> pitzadura	«Zorua zementuzkoa zen eta ez zeukan <b>arrakalarik</b> ; ez zegoen hezetasun-usainik.»	(48)
<b>arrandiatsu</b> handiustea, harroa	«...eraikina bera, horma <b>arrandiatsu</b> , haritz-egurrez estaliak, lehendakari-ohi famatuaren erretratuak...»	(113)
<b>atzenean</b> azkenean	« <b>Atzenean</b> zulo bat ikusi zuen sasien artean, eta handik joan zen zirga-bide hutsera.»	(52)
<b>basa</b> hezigabea, basatia	«Mutil hau, jaun-andreok, berez da hezigabea eta <b>basa</b> .»	(184)
<b>bizkarroi</b> parasittoa	« <b>Bizkarroi</b> onuragarriak gara. Jabearekiko harreman sinbiotikoan bizi gara.»	(30)
<b>durundi</b> hots ozena, erresonantzia	«Handik gutxira ez zen batere soinurik aditzen, txorien kantua eta autobideko trafikoaren urruneko <b>durundi</b> etengabea izan ezik.»	(51)
<b>ematxar</b> prostituta, emagaldua	«Barkamena eskatu nahi dizut zure zoritxar pribatuak alferrontzi eta <b>ematxar</b> kuadrilla honen aurrean aipatzeagatik.»	(186)
<b>erdeinu</b> mespretxua	« <b>Erdeinuz</b> begiratzen zion bere anaia zaharragoen ikuspegi estuko gogorkeriari...»	(56)
<b>eritasun</b> gaixotasuna	«...hobeto egon arren, oraindik guztiz sendatu gabeko <b>eritasun</b> larri bat izan balu bezala.»	(44)
<b>erresuminduta</b> suminduta, oso haserre	«Hala, haserre eta <b>erresuminduta</b> , benetako izena eta helbidea eman zituen.»	(94)
<b>errieta egin</b> haserre egin, agiraka egin	«Jennyk ez zuen ezer esan, eta Chrisi <b>errieta egin</b> ziotela iruditu zitzaion...»	(37)
<b>esesle</b> erasotzailea	«Chris bidean geratu zen, <b>esesleen</b> zain, guztiz lasai, guztiz seguru.»	(15)
<b>eskorga</b> esku-orga txikia, karretila	«Garaje txiki estuan, <b>eskorga</b> baten, Black&Decker kutxa baten eta Seanen traste-mordo baten ondoan, Sueren bizikleta zegoen.»	(190)
<b>ganga</b> kupula	«Zuhaitzen zutabe bihurrituek, buru gaineko <b>ganga</b> astunak, eta, oroz gain, ate zabalduaren isiltasunak, beldurtu egiten zuten.»	(196)
<b>gogaikarri</b> aspergarria, nazkagarria	«...nola izan zitekeen hain <b>gogaikarria</b> gauza horiek guztiak egiten zituen pertsona bat.»	(70)
<b>goragale</b> botalarria, gonbitularria	«Labana zabaldu eta bi aldiz altxatu zuen, baina bietan huts egin zion adoreak, eta eztaariko <b>goragalea</b> negar-zotin bihurtu zitzaion.»	(199)



<b>grina</b> gogo bizia, pasioa	«Anaia gazteena gizon bitxia, krudela, gogoeta zalea zen; irakurle handia; <b>grinak</b> glaziar bat bezain hotzak eta errukigabeak zituen gizona.»	(57)
<b>halaber</b> era berean	«...eta halakorik bururatu balitzaio, bururatuko zitzaion <b>halaber</b> egia laster jakingo zela...»	(94)
<b>hazpegiak</b> aurpegiaren alderdiak	«Oso gizon indartsua eta segurtasun handikoa zen, bere <b>hazpegi</b> zehatz gogorrekin, bere begi beltz handiekin, bere bekain beltzekin.»	(132)
<b>haztatu</b> atzamarrekin ikutu	«Lurra <b>haztatuz</b> zihoan bidexkan barna, harriak txikituz, adarrak eta asunak alboratuz...»	(194)
<b>herabe</b> lotsati	«Jennyk, mutilaren aurretik igarotzean, duda egin zuen, eta hanka-punttetan jarrita musu eman zion gero, <b>herabe</b> ...»	(80)
<b>higatu</b> erabileraz hondatu, gastatu	«...tigre edo otso moduko zerbait bihurtzen ziren (...) Jenny <b>higatzera</b> , suntsitzera, urratzera inguratzen zitzaizkionak.»	(102)
<b>horditurik</b> mozkorturik	«Chris polikiago joan zen, eta estalpearen ondora iristean gelditu egin zen, zergatik argi ez zekiela argi, <b>horditurik</b> bezala.»	(14)
<b>itsumandoka</b> itsu-itsuka (jolasten)	«Egoera apur bat komikoa zen orain, <b>itsumandoka</b> balebiltza bezala.»	(20)
<b>itsuski</b> zatarki	«...aitak esnatzen zuen Jenny eta berak egiten zion gosaria; orduan hasi zen alabaz <b>itsuski</b> baliatzen.»	(39)
<b>itzuri egin</b> ihes egin	«Ez dakit zuk zer deritozun holako jendeak zigorrari <b>itzuri egiteari</b> .»	(167)
<b>jeloskor</b> zeloak dituen	«...egia baldin bazen Sandra Barryrekin zebilela, neskak <b>jeloskor</b> agertu behar zuen harena eta Jennyrena kontatu zionean.»	(151)
<b>korde</b> konortea	« <b>Kordea</b> galdu ote zuen? Ondoezik zegoela esan zuten, gehiegi edan zuela.»	(18)
<b>lakar</b> leuntasunik gabekoa, latza	«Bidea <b>lakarregia</b> zen errepedeko bizikleta batentzat...»	(60)
<b>lastaira</b> lastozko koltxoia	«Altzariak ere bazeuden: ohe bat bere <b>lastaira</b> eta lumatxarekin, mahai bat eta bi aulki, tiraderekiko komoda bat...»	(143)
<b>lauso</b> lurrundura, lainoa	«...eta bake <b>lauso</b> batez inguratuta mugitzen zen beti, hippie bat bezala.»	(111)
<b>lausotu</b> gardentasuna kendu	«...une hartan ume-malkoek begiak <b>lausotu</b> baitzizkioten.»	(146)
<b>leher egina</b> neka-neka eginda	«Jenny ikaragarri nekatuta, zeharo <b>leher egina</b> sentitu zen.»	(132)
<b>lertxun</b> hegazti lepo-hanka luzea	«...ubiderantz abiatu zen, eta izugarri harritu zen, <b>lertxun</b> bat ez ezik –lertxunak ezagutzen zituen–, animalia marroi bat ere ikusi zuenean.»	(176)
<b>lumatxa</b> lumazko lozakua	«Altzariak ere bazeuden: ohe bat bere lastaira eta <b>lumatxarekin</b> , mahai bat eta bi aulki, tiraderekiko komoda bat...»	(143)
<b>maizter</b> errentaduna, alogerekoa	«Begira, astebeteko epearekin esan behar diot nire <b>maizterrari</b> gela uzten dudala...»	(136)
<b>matraileko</b> belarrondokoa, zaplastakoa	«Piersek <b>matraileko</b> bat eman zion erantzun gisa.»	(113)
<b>mehar</b> estua	«Gizon mehea zen, baldarra, <b>meharra</b> ...»	(111)
<b>melenga</b> gozoezia, bigunegia	«...zuek denak, zuek bezalakoak... <i>ondo sentitzearen</i> xamurkeria <b>melenga</b> horiekin zabiltzate beti...»	(129)
<b>motots</b> bildutako ile-multzoa	«...ile luzea zuen, atzealdean <b>motots</b> baten bilduta.»	(101)



<b>oinaze</b> sufrimendua, mina	«...ondo zekien <b>oinazeak</b> nola ikarutzen zuen, eta zeinen arbuiaigarria zen...»	(202)
<b>oldarkor</b> erasokorra	«Edward zuen izena, eta beste era batekoa zen. Besteak <b>oldarkorrak</b> ziren, eta hau kalkulatzaila...»	(56)
<b>orezta</b> larruazaleko orban biribila	«Sandra neska potxola eta atsegina zen, hogeitaka urtekoa, ile gorria eta <b>oreztaduna</b> .»	(151)
<b>orobat</b> halaber, berdin	«...telefono-deia egiazkoa izan zen, eta <b>orobat</b> izan zen egiazkoa Barry zurbildu zen modua Jennyk deiarena kontatu zionean.»	(144)
<b>oroz gain</b> denaren gainetik	«Zuhaitzen zutabe bihurrituek, buru gaineko ganga astunak, eta, <b>oroz gain</b> , ate zabalduaren isiltasunak, beldurtu egiten zuten.»	(196)
<b>ostu</b> lapurtu, ebatsi	«Halako batean Securicor furgoneta diru-hornitzaile bat <b>ostea</b> erabaki zuten, banku batera dirua zeramana, diru harekin droga-operazio handietan sartzeko.»	(54)
<b>sarkasmo</b> ironia latz eta mingarria	«Batak bestea gure <b>sarkasmorik</b> ankerrenaz txikitzea zen han egin zitekeen gauzarik okerrera.»	(185)
<b>segada</b> ustekabeko eraso	«Behar bezala antolatu behar dut <b>segada</b> ... Aizu, lan bila zabiltzala esan duzu, ezta?»	(144)
<b>sesio</b> liskarra, haserrea	«Ikaraz etxeratu zen, ama <b>sesioan</b> hasiko ote zitzaion...»	(69)
<b>solasgai</b> hizketa gaia	«Nekatuta zegoen amarekin eta amaren lagun berriarekin etxean egoteaz, <b>solasgai</b> bila eta traba egiten zuela sentituz beti.»	(10)
<b>sorgortuta</b> sentikortasuna galduta	«Chris <b>sorgortuta</b> zegoen. Amorrua hantxe zegoen, baina orain argiago ikusten zuen, eta hizketa-puskak aditzen zituen...»	(114)
<b>suhartasun</b> izaera gartsua, beroa, bizia	«...baina arreta ia osoa umearen <b>suhartasun</b> tolesgabean zeukan jarria, umeak gauzen mirarian zeukan fedean, haren errugabetasunean.»	(120)
<b>tiradera</b> kajoia	«Altzariak ere bazeuden: ohe bat bere lastaira eta lumatxarekin, mahai bat eta bi aulki, <b>tiraderekiko</b> komoda bat...»	(143)
<b>tolesgabetasun</b> nobletasuna, faltsukeria eza	«...oso maiz kliskatzen zituen begiak, eta keinu horrek halako <b>tolesgabetasun</b> itxura ematen zion.»	(11)
<b>tuntundu</b> ergeldu, tontotu	«Ez dakit, batzuetan <b>tuntundu</b> egin dela iruditzen zait.»	(177)
<b>txundituta</b> zur eta lur geratuta	«Lehenago jazz-laukote bat arituko zen karpan jotzen, eta gero komiko gay bat jardungo zen, telebista-saioa kendu ziotena. Chris <b>txundituta</b> zegoen.»	(12)
<b>zarakar</b> zauriaren ondorengo	«Aitak ez zuen ordainduko faktura ikaragarri hura begi belztuekin eta <b>zarakarrekin</b> etxeratuko bagina.»	(185)
<b>zaurgarritasun</b> minberatasuna	«Argi ageri zen neskaren aurpegian aintzirako gau hartan Chrisen ikusi zuen <b>zaurgarritasun</b> tolesgabe, kezkatua...»	(36)
<b>zelata</b> ezkutuan begiratzea,	«Eta dena ipini nuen. Grabagailua, ezkutuko bideokamera, dena. Borrokaldi bat izan zen ordea. <b>Zelata</b> jarri ziguten.»	(109)
<b>zirga-bide</b> untziak uretaratzeko bidea	«Atzenean zulo bat ikusi zuen sasien artean, eta handik joan zen <b>zirga-bide</b> hutsera.»	(52)
<b>zurbil</b> kolore gabe	«Jennyk begiak jaso zituen, eta Barry serio-serio ikusi zuen, <b>zurbil</b> , larri.»	(139)
<b>zurrunbilo</b> jira-bira azkarra	«Autoa trafikoaren <b>zurrunbiloan</b> sartu zenean, Barryk hizketan jarraitu zuen.»	(140)
<b>zurrunduta</b> malgutasuna galduta	«Amorruak <b>zurrunduta</b> zeukan gizonaren aurpegia.»	(133)
<b>zuzi</b> tortxa, argi egiteko makila	«... <b>zuziak</b> belarretan piztuta, argiak zuhaitz handien artean distiraka, musikaren lehen notak ur gainean labaintzen zirela.»	(12)